

**IDAZKARITZAK ETA KONTU-HARTZAILETZAK BAKIOKO
UDALAREN EGOERA EKONOMIKOARI ETA DOIKUNTZA PLANAREN
BETETZE MAILARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENA ETA MEMORIA**

AURREKARIAK

2012ko abenduaren 7an, Bakioko Udalbatzak doikuntza plana onetsi zuen eta mailegu bat eskatu zuen, Bakioko Udalak izandako zenbait zor finantzatzeko, betiere 2012ko ekitaldirako zorpetze maila mugatzen zuen ekainaren 21eko 5/2012 Foru Arauaren eta ekainaren 26ko 111/2012 Foru Dekretuaren markoan. 2012an hitzartutako mailegu berriaren zenbatekoa 5.000.000,00 eurokoa izan zen.

TXOSTENAREN HELBURUAK

**1.- DOIKUNTZA PLANAREN BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA
2013AN**

A.- Gastuei dagokienez, 2013an onetsi eta betearazitako aurrekontuak doikuntza planaren proiektzio nagusiak betetzen ditu:

I. kapitulua.- Langileak. Ezarritakoa bete da: erretiroak ez dira estali (2012an erretiroa hartutako bi langile), ez da errefortzurik kontratatu udan, ez da garbiketako errefortzurik kontratatu, ez dira amatasun eta gaixotasun bajak estali, ez da estali antolakuntza arazoengatik izandako langile baten irazpena.

2013ko ekitaldirako doikuntza planean 1.422.180,00 euroko gastua aurreikusi zen, 2013ko aurrekontuan 1.246.000,00 euroko kopurua zainpetu zen; horrek berekin zekarren gastua 175.000,00 euroan murriztea plangintzaren aldean eta aintzatetsitako obligazio garbien aldean; 2013an gastua 1.210.828.14 eurokoa izan da.